AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3944

AGINDUA, 2012ko uztailaren 17koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, 2000ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen martxoaren 28ko 59/2000 Dekretutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Menpeko Langileen eta Administrari Laguntzaileen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzeko dena.

Justizia eta Administrazioko sailburuaren 2000ko ekainaren 22ko zenbait aginduren bidez, 2000ko enplegu publikoko eskaintzatik eratorritako hautaketa-prozesuen oinarriak onartu ziren (prozesu horiek bidea emango zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Menpeko Langileen eta Administrari Laguntzaileen kidegoetako karrerako funtzionario gisa lanean hasteko). Hautaketa-prozesu horiek karrerako funtzionario izendatutako hautagaiek lanpostuen jabetza hartuta bukatu ziren.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2006ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez (ekainaren 7ko EHAA), Menpeko Langileen Kidegoan esleitu beharreko postuen eta hautatutako pertsonen zerrendak argitaratu ziren.

EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 329/09 epaiak dioenez, «Administrazio demandatuak interesatuen lanbide-esperientzia baloratu behar du, zerbitzu emandako hilabete bakoitzeko 0,05 puntu emanda (gehienez ere 6 puntu eman daitezke), eta ez da kontuan hartuko Euskadiko herri-administrazioetan emandako zerbitzu hori Mendeko Langileen Kidegoan edo beraren baliokidean edo dagokion lanpostu-zerrendan kidego horri irekitako lanpostuetan eman ote duen».

Epai horren ondorioz, indarrik gabe geratzen da Mendeko Langileen Kidegoko hautaketa-prozesuaren oinarrietako 4.3.2.1 atalean ezarritako banaketa hau:

4.3.2.1.– Herri-administrazioetan emandako zerbitzuak.

Herri-administrazioetan emandako zerbitzuengatik gehienez ere 6 puntu eskura daitezke, honela banaturik:

a) Administrazio Orokorrean, Foru Administrazioan eta Tokiko Administrazioan Mendeko Langileen Kidegoan edo beraren baliokidean edo dagokion lanpostu-zerrendan kidego horri irekitako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunera arte: zerbitzu emandako hilabete bakoitzeko 0,05 puntu (6 gehienez ere).

b) Gainerako herri-administrazioetan Mendeko Langileen Kidegoan edo antzekoan edo dagokion lanpostu-zerrendan kidego horri irekitako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunera arte: zerbitzu emandako hilabete bakoitzeko 0,03 puntu (6 gehienez ere).

Beraz, epaia kontuan hartu eta betearazteko, agindu honen I. eranskineko Euskal Autonomia Erkidegoko Mendeko langileak karrerako funtzionario izendatu beharra dago, eta beren kidegoari

irekitako lanpostu bati behin betiko atxikita geratzen dira, Lanpostuen Zerrendan jasotako baldintza guztiak betetzen baitituzte, eta horri dagozkion ondorio guztiak jasotzen dituzte. Langile horiek atxikitzen zaizkien lanpostuak 2. eranskinean jasota daude.

Langile horiek karrerako funtzionario izendatutarik geratzen dira, gainerako hautagaiak izendatuak diren egunetik ondorioak jasotzen dituztela. Horrela, karrerako funtzionario izendatzen zituzten egunetik, lanpostuaz jabetzeko epea hilabetekoa izan zen, izendapen-agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; 2006ko uztailaren 10a izan zen lanpostuaz jabetzeko lehenengo eguna. Beraz, 2006ko uztailaren 10ean hasi ziren izendapenaren eta lanpostuaren jabetzaren ondorioak, I. eranskinean aipatutako langileentzat.

Hori dela eta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 104.1 artikuluarekin bat etorriz, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1 artikuluan emandako eskumenaz baliaturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen I. eranskinean agertzen diren langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Menpeko Langileen eta Administrari Laguntzaileen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzea, ondorioak 2006ko uztailaren 10etik aurrerakoak izango direla.

Bigarrena.– Langile horiek agindu honen II. eranskinean agertzen diren lanpostuei behin betiko atxikitzea, ondorioak 2006ko uztailaren 10etik aurrerakoak izango direla.

Hirugarrena.– Agindu hau I. eranskinean agertzen diren langileei jakinarazteko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 17a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

Karrerako funtzionario izateko izendapena egiten zaien izangaien zerrenda
Mendeko Langileen Kidegoa

NAN	Izen-abizenak		
16043556-K	Nekane	Alkorta	Lecumberri
16248463-K	Jaime	Aperribay	Ganzabal
14576018-K	Juan Pedro	Arribas	Arnaiz
16270308-Q	Jesus Angel	Castaño	Martin
15939648-G	Oscar	Garcia	Ruiz de Gauna
16279054-E	Jacinto	Gomez	Ramos
15927710-A	Santiago	Olasagasti	Irigoyen
34084003-G	Maria Inmaculada	Orella	Azcona
16273200-X	Teodoro	Rico	Pastrana
14943146-T	Maria Belen	Ruiz-hierro	Diaz de Tuesta
16268261-Q	Carlos Felix	Zuazo	Urrutia

II. ERANSKINA

Karrerako funtzionario izateko izendapena egiten zaien izangaien zerrenda eta esleitzen zaizkien lanpostuak

NAN	Lanpostua
16043556-K	530030/39
16248463-K	530030/169
14576018-K	530030/215
16270308-Q	530030/219
15939648-G	
16279054-E	530030/37
15927710-A	530030/92
34084003-G	530030/11
16273200-X	530030/34
14943146-T	530030/212
16268261-Q	530030/335